

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Andoaingo Udaleko Kultura Batzordeak argazki lehiaketa deitzen du 2026. urteko inauterietako kartel iragarlea eta programaren azala osatzeko.
2. Lehiaketa herri mailakoa da eta horretan parte hartu ahal izango dute 14 urtetik gorako pertsonak, Andoaingen bizi, ikasi ala lan eginez gero.
3. **Gaia Andoaingo Inauteriak** izango da, eta edukiari eta ideiarri dagokienez, lanek jatorrizkoak izan beharko dute.
4. Argazkiak Andoaingo inauterietan ateratakoak eta argitaragabeak behar dute izan. **Ez da onartuko edozein motako indarkeriaren aldeko mezurik, ez alderdi politikoena, ez sexu diskriminazioa bultzatzen duen adierazpenik ez eta arrazakeria goratzen duen aipamenik ere.** Elementu iraingarriak dituzten argazkiak lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea izango du Andoaingo Udalak.
5. **Tamaina.** Kartelek 60 zm-ko altuera eta 42 zm-ko zabalera izango dute, diseinua neurri horietan edo neurri horien proportzioan aurkeztu beharko da.
6. Lanak formato digitalean aurkeztu beharko dira, bai euskarri batean (CD, pendrive, ...) Bastero Kulturgunean, bai emailaz kultura@andoain.eus helbidean. Lanarekin batera, beste artxibo bat aurkeztu beharko da lanaren lema edo izenburuarekin eta egilearen izen deiturak, helbidea eta telefono zenbakiarekin.
7. **Lanak aurkezteko epea 2025eko martxoaren 24an, astelehena, bukatuko da.**
8. Argazkiak oinarritzko prozesaketa zein prozesaketa garatuaren bidez (zonen bidezko prozesaketa, adibidez) eralda daitezke. Artxiboak 8MG baino txikiagoak izango dira. Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 lan aurkeztu ahal izango ditu, txuri-beltzean ala koloretan
9. Epaimahaia Kultura Batzordeko kide batek eta bi artistek, kritikari edo profesionalek, osatuko dute, eta bere erabakia apelaezina izango da. Erabakia prentsaren bidez ezagutaraziko da, baita sariak banatzeko eguna eta ordua ere.
10. Epaimahaiaren iritziz ezaugarriarik egokienak dituen lanarentzat **350 euroko** sari bakarra bonoetan (*) ezarri da. Dena den, Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanen artean ez badago bakar bat ere saria jasotzeko adinako kalitate daukanik, lehiaketa hutsik utzi ahal izango du.
(*) **Andoaingo SALKIN elkarteko dendetan erabiltzeko.**
11. Saritutako lana Andoaingo Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreprodukzio egiteko eskubidea izango du. Kasu horretan autoreak ez du inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru-kopururik ere ezingo dute jaso. Erreprodukzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du udalak eta dagokion euskarrian argitaratzeko diseinu aldetik beharrezkoak ikusten diren egokitzapenak egiteko eskubidea ere izango du.
12. Lehiaketan parte hartzen duten argazkiak ez dira Andoaingo Udalarenak izango. Bere artxiboan gordeko ditu eta parte-hartzaileak onartzen du Andoaingo Udalak haiek erabiltzeko aukera izango duela, beti ere, egilearen izena aipatuz.
13. Parte-hartzearekin, egileak aitortzen du bidalitako argazkiaren eta horren edukiaren ardura duela. Hortaz, parte-hartzaile-bakoitza izanen da hirugarren baten eskubideak ukatzearen gerta litezkeen erreklamazio guztien arduradun bakarra, honen-barruan sartuz muga gabeko jabetza industrialeko edo intelektualeko lege-jabetza eta irudi-eskubideak. Beraz, lehiaketako-partehartzaileak Andoaingo Udala kalte gabe utziko duela hitzematzen du.
14. Parte-hartzaileek emandako datuak Andoaingo Udalaren fitxategi batean sartuko dira.–Andoaingo Udalak jakinarazten du datu pertsonalak babesteari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren eta horretarako aplikatu daitezkeen araudien arabera, noiznahi, egileak erabil dezakeela datu pertsonalak sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo horiei aurka egiteko eskubidea. Horretarako, eskaera bat bidali behar dio, Andoaingo Udalari, eskaera adieraziz eta nortasun agiriaren kopia batekin.
15. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.